



EBAZPENA / RESOLUCIÓN

OGASUN ZUZENDARITZA NAGUSIA DIRECCIÓN GENERAL DE HACIENDA

Ogasun eta Finantza Departamentuaren 2015-2019 epealdiko lehentasunezko jarduketa lerroetako bat da antolamendu malgu eta zeharkako batean oinarrituko den lan eredu bat abian jartzea departamentua administrazio modernoaren erreferente bat izan dadin zerga iruzurraren aurkako borrokan. Hala jasotzen da bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoan bai Departamentuaren Kudeaketa Planean.

Zerga-bilketaren esparruan zerga iruzurra prebenitzeko, beharrezko gertatzen da zuzendariordetza nagusiek (Ikuskaritzakoak eta Kudeaketakoak) jarduketan segimendua koordinatzea hasten diren unetik beretik, horrekin ahalbidetzen baita kautelazko neurriak lehenago hartzea zerga zorrak kobratuko direla bermatzeko.

Antolaketaren ikuspegitik, 2016ko uztailean Prozedura Berezien Zerbitzua sortu zen Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiaren barruan, eta, harrez gero, organo horrek Ogasun Zuzendaritza Nagusiko beste zuzendariordetza nagusiekin koordinatzen ditu zorren kobrantza kautelazko neurrien bidez ziurtatzeko aurrera eramaten diren jarduketak

Una de las líneas de actuación prioritarias del Departamento de Hacienda y Finanzas para el periodo 2015 a 2019, recogida tanto en el Plan Estratégico de Gestión de la Diputación Foral de Gipuzkoa como en el Plan de Gestión Departamental, es la puesta en marcha de un modelo de trabajo basado en la organización flexible y transversal para lograr el objetivo de convertir al Departamento en un referente de administración moderna en la lucha contra el fraude fiscal.

En el ámbito de la prevención del fraude en fase recaudatoria es necesario el seguimiento coordinado de las actuaciones entre las Subdirecciones Generales de Inspección y Gestión y la Subdirección General de Recaudación, desde el inicio de las mismas, para poder anticipar la adopción de medidas cautelares con la finalidad de garantizar el cobro de las deudas.

Desde el punto de vista organizativo, se creó en julio de 2016 en la Subdirección General de Recaudación el Servicio de Procedimientos Especiales, que es el órgano que dicha Subdirección ha determinado para coordinar con el resto de las Subdirecciones Generales de la Dirección General de Hacienda las actuaciones encaminadas a asegurar el cobro



Horrek guztiak beharrezko egiten du barne instrukzio berri bat onartzea Ogasuneko zuzendari nagusiak koordinazio eta kautelazko neurrien inguruan 2012ko abenduaren 13ko 184/2012 Ebazpenaren bidez onartutako instrukzioa eguneratzeko eta, testuinguru berri horretan, hari jarraipena emateko.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengo.- Onartzea eranskin gisa doan barne instrukzioa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 78. artikuluan aurreikusten diren kautelazko neurriak hartzeko jarduketetan Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzendaritza Nagusiko zuzendariordetzak koordinatzeko prozedura ezartzen duena.

Bigarren.- Indarrik gabe uztea abenduaren 13ko 184/2012 Ebazpena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 78. artikuluan aurreikusten diren kautelazko neurriak hartzeko jarduketetan Departamentuko zerbitzuak koordinatzeko prozedura operatiboa ezartzen duena.

de las deudas mediante la adopción de medidas cautelares.

Todo lo anterior hace necesaria la aprobación de una nueva instrucción interna que actualice y dé continuidad, en este nuevo contexto, a la anterior instrucción en materia de coordinación y medidas cautelares aprobada por la Resolución 184/2012, de 13 de diciembre, del Director General de Hacienda.

Por lo expuesto,

RESUELVO

Primero.- Aprobar la Instrucción interna, que se acompaña como Anexo, por la que se establece el procedimiento de coordinación, entre las Subdirecciones Generales de la Dirección General de Hacienda del Departamento, para la adopción de las medidas cautelares previstas en el artículo 78 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Segundo.- Derogar la anterior Instrucción interna 184/2012, de 13 de diciembre, por la que se establece el procedimiento operativo de coordinación entre los servicios del Departamento para la adopción de medidas cautelares de conformidad con lo dispuesto en el artículo 78 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.



ERANSKINA

Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren instrukzioa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 78. artikuluan aurreikusten diren kautelazko neurriak hartzeko jarduketetan Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiko zuzendariordetza nagusiak koordinatzeko prozedura ezartzen duena.

LEHENA. APLIKAZIO EREMUA

Barne instrukzio honen xedea da Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiaren eta Ogasun Zuzendaritza Nagusiko beste zuzendariordetza nagusien artean koordinatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 78. artikuluan zorren kobrantza ziurtatze aldera aurreikusten diren kautelazko neurriak hartzeko jarduketak.

BIGARRENA. PRINTZIPIO OROKORRA

Bat. Kudeaketa, ikuskapen edo zerga-bilketa prozedura batean zehar atzematzen bada badirela arrazoizko zantzuak pentsatzeko ondorioztatu daitekeen zorra ezin izango dela

ANEXO

Instrucción de la Dirección General de Hacienda, por la que se establece el procedimiento de coordinación entre las Subdirecciones Generales de la Dirección General de Hacienda para la adopción de las medidas cautelares previstas en el artículo 78 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

PRIMERO. ÁMBITO DE APLICACIÓN

La presente instrucción interna tiene por objeto coordinar, entre la Subdirección General de Recaudación y el resto de Subdirecciones Generales de la Dirección General de Hacienda, las actuaciones encaminadas a asegurar el cobro de las deudas, mediante la adopción de las medidas cautelares previstas en el artículo 78 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa

SEGUNDO. PRINCIPIO GENERAL

Uno. Si en el curso de un procedimiento de gestión, inspección o recaudación existen indicios racionales de que el cobro de la deuda que pudiera resultar podría verse frustrado o



kobratu edo kobrantza nabarmen oztopatu daitekeela, Zerga-bilketako zuzendariorde nagusiak kautelazko neurriak hartuko ditu haren kobrantza ziurtatzeko.

Bi. Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, arrazoizko zantzuak egongo dira zorra ezingo dela kobratu edo kobrantza nabarmen oztopatu daitekeela pentsatzeko, besteak beste, detektatzen denean hurrengo jarduketak egin direla edo prestatzen ari direla, edo zirkunstantzia hauek gertatzen direnean:

I.- Ondarea husteko eragiketak, esate baterako, hauek:

- a) Ezkontza itunak egitea, eta horietan zergapekoaren ezkontideari edo izatezko bikoteari esleitzea ondarean balio handienekoak diren ondasunak edo eskubideak edo errazen aurkitu eta traba daitezkeenak.
- b) Entitateei ondasun edo eskubideen ekarpenak egitea, entitate horiek zergapekoarekin lotuta daudenean edo zergapekoaren zuzeneko senideek haien kapitalean gehiengo partaidetza dutenean.
- c) Zergapekoarekin lotuta dauden pertsonen eta erakundeen edo, beren errenta eta ondareari erreparatuta, kaudimen gutxikoak direnei, ondasunak edo

gravemente dificultado, el Subdirector General de Recaudación adoptará medidas cautelares con el fin de asegurar su cobro.

Dos. A efectos de lo señalado en el apartado anterior, se considerará que existen indicios racionales de que el cobro de la deuda puede verse frustrado o gravemente dificultado, entre otros supuestos, cuando se detecte que se ha realizado o se está fraguando la realización de las siguientes actuaciones, o cuando concurren las siguientes circunstancias:

I.- Realización de operaciones de vaciamiento patrimonial, tales como:

- a) Otorgamiento de capitulaciones matrimoniales, de tal modo que conduzcan a atribuir al cónyuge o pareja de hecho del obligado tributario aquellos bienes o derechos patrimoniales de mayor valor o de más fácil localización y traba.
- b) Aportación de bienes o derechos a entidades vinculadas con el obligado tributario o en las que familiares directos del mismo tengan una participación mayoritaria en el capital.
- c) Transmisión de bienes o derechos a personas o entidades vinculadas con el obligado tributario o a personas o entidades de escasa solvencia, atendiendo a la renta y



eskubideak eskualdatzea.

d) Beste pertsona edo entitate batzuei jarduera ekonomikoak lagatzea edo jarduera adarren ekarpenak egitea.

e) Ondasunak edo jarduera ekonomikoak beste pertsona edo entitate batzuei lagatzea, baldin eta, objektiboki hartuta, egiaztatutako zergapekoaren jardueraren sarrerak beste pertsona edo entitate baten esku geratzen badira, ordainketa orekatu bat izan gabe.

f) Aktiboa edo ondarea osatzen duten elementuen parte esanguratsu bat besterendu edo lagatzea.

g) Finantza entitateetatik funtsak ateratzea.

h) Sozietatearen salmentengatik izandako kobrantzak administratzaileen ondarrera desbideratzea eta administratzaile horiek geroago ezkutatze eragiketak egitea salmenta horien produktuarekin.

II.- Zergapekoaren ez-betetze kasuak:

a) Zerga betebeharrak ez betetzea.

b) Aitorpen edo autolikidazio faltsuak, osatu gabeak edo ez-zehatzak aurkeztea,

patrimonio conocidos de éstas.

d) Cese de hecho de las actividades económicas o aportaciones de ramas de actividad a otras personas o entidades.

e) Cesión de bienes o actividades económicas a otras personas o entidades, siempre que, objetivamente considerada, sitúe los ingresos de la actividad económica ejercida por el obligado tributario, en sede de otra persona o entidad, sin una equilibrada contraprestación.

f) Enajenación o cesión de una parte significativa de los elementos de su activo o patrimonio.

g) Retiro de depósitos de entidades financieras.

h) Desvío de cobros por ventas de la sociedad hacia el patrimonio de sus administradores y las subsiguientes operaciones de ocultación realizadas por ellos con el producto de dichas ventas, etc.

II.- Incumplimientos por parte del obligado tributario:

a) Incumplimiento de obligaciones tributarias corrientes.

b) Presentación de declaraciones o autoliquidaciones incompletas, inexactas o con



herri-ogasunaren interesei kalte egiteko arriskua egonik.

c) Autolikidazioak aurkeztea zatikapenak edo berme salbuespenak etengabe eskatuta.

d) Gainerako hartzekodunekin dituen betebeharrak ez betetzea.

III.- Zergapekoa zirkunstantzia hauetako batean dagoenean:

a) Zergapekoa pertsona fisikoa denean eta, herri-ogasunarekin zordun diren entitateen administratzaile edo bazkide nagusi izanik, zor horiek huts egintzat jo direnean, edo haien kaudimen urria agerikoa denean.

b) Zergapekoa pertsona juridikoa denean eta bere administratzaileak edo bazkide nagusiak aurretik huts egintzat jo direnean, edo entitate zordunen administratzaile edo bazkide nagusi izanik, haien zorra huts egintzat jo denean, edo berau kobratzeko zailtasunak agerikoak direnean.

c) Herri-ogasunetik zorrak epe exekutiboan mantentzen dituenen.

d) Egiaztapen jarduketei aurre, aurka edo uko egin dienean edo horiek oztopatu dituenen, jarduketak eta likidazioak

datos falsos, con riesgo de perjudicar los intereses de la Hacienda Pública.

c) Presentación reiterada de autoliquidaciones con solicitud de fraccionamiento y de dispensa de garantía.

d) Incumplimiento de sus obligaciones con el resto de acreedores.

III.- Cuando en el obligado tributario se de alguna de las siguientes circunstancias:

a) Sea una persona física y haya formado parte como administrador o socio mayoritario de entidades deudoras con la Hacienda Pública que hayan sido declaradas fallidas o respecto de que las que resulte acreditada su escasa solvencia.

b) Sea una entidad y sus administradores o socios mayoritarios hayan sido declarados fallidos o hayan formado parte como administradores o socios mayoritarios de entidades cuyos débitos hayan sido declarados incobrables o resulte acreditado su difícil cobro.

c) Mantenga deudas en periodo ejecutivo frente a la Hacienda Pública.

d) Haya mostrado oposición, resistencia, negativa u obstrucción a actuaciones de comprobación que puedan dilatar las



atzerarazteko moduan, herri-ogasunaren eskubideei kalte egiteko arriskua egonik.

e) Zergapekoa edo harekin lotutako pertsona edo entitate bat Arrisku Bereziko Zergapekoen Erroldan inskribatuta dagoenean. Ondorio horietarako, pertsona edo entitate lotuak direla ulertzeko, sozietateen gaineko zergaren araudiak ezarritakoari jarraituko zaio.

IV.- Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudenean, delituari lotutako likidazio proposamena formalizatu edo ez (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz).

V.- Zorra kobratzea oztopatu edo zapuztu dezaketen beste jarduketak eta kasu guztiak.

**HIRUGARRENA. JARDUKETAK
KOORDINATZEA OGASUN ZUZENDARITZA
NAGUSIKO ZUZENDARIORDETZA
NAGUSIEN ARTEAN**

Bat. Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak informazio hau bidaliko dio Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiari:

actuaciones y la práctica de liquidaciones, con riesgo de perjudicar los derechos de la Hacienda Pública

e) Cuando el obligado tributario o alguna persona o entidad vinculada al mismo haya sido objeto de inscripción en el Registro de Obligados Tributarios de Especial Riesgo. A estos efectos la consideración de personas o entidades vinculadas se hará atendiendo a lo previsto en la normativa reguladora del Impuesto sobre Sociedades.

IV.- Cuando se aprecien indicios de delito contra la Hacienda Pública, se vaya a formalizar o no una propuesta de liquidación vinculada a delito de acuerdo con el procedimiento establecido en el artículo 251 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

V.- Cualesquiera otras actuaciones y supuestos tendentes a dificultar o frustrar el cobro de la deuda.

**TERCERO. COORDINACIÓN DE
ACTUACIONES A LLEVAR A CABO ENTRE
LAS SUBDIRECCIONES GENERALES DE LA
DIRECCION GENERAL DE HACIENDA**

Uno. La Subdirección General de Inspección trasladará a la Subdirección General de Recaudación, la siguiente información:



1. Hilero:

a. Egiaztapen edo ikerketa prozedura baten hasiera jakinarazi zaien zergapekoen zerrenda.

b. Egiaztapen edo ikerketa prozedura bat irekita duten zergapekoen zerrenda, prozedura hori akta proposatzeko fasean dagoenean edo aktuarioak akta amaitua duenean, baldin eta fase horretan aurreikusi baldin badaiteke likidazioaren zenbateko osoa 200.000 € baino handiagoa izango dela. Ondorio horretarako, barruan sartuko dira zergapeko bati edo, erlazionatutako espedienteengatik harekin lotutako zergapekoen talde bati likidatu dakizkiokeen zergak eta gainerako kontzeptuak.

c. Delituari lotutako likidazio proposamena edo delituari lotutako likidazioa jakinarazi zaien zergapekoen zerrenda.

d. Ogasuneko zuzendari nagusiak emandako ebazpena Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudenean eta zergapekoarekiko horien aurka akzio judizialak jartzekoaren alde eginiko zerrenda, betiere, 2/2005 zergei buruzko foru arauak, martxoaren 8koak, bere 249.1.a) artikuluan xedatutakoaren salbuespena ematen denean.

1. Con carácter mensual:

a. Relación de los obligados tributarios a los que se les haya notificado el inicio de un procedimiento de comprobación e investigación.

b. Relación de los obligados tributarios a los que se les haya notificado una propuesta de acta o un acta que posibilite prever un importe total de liquidación superior a 200.000 euros, teniendo en cuenta, al efecto, todos los impuestos y demás conceptos por los que se prevea practicar liquidación respecto de un obligado tributario o, en su caso, de un grupo de obligados vinculados a él como expedientes relacionados.

c. Relación de obligados tributarios a los que se les haya notificado una propuesta de liquidación vinculada a delito o una liquidación vinculada a delito.

d. Relación de obligados tributarios respecto de los que se haya dictado Resolución del Director General de Hacienda relativa a la interposición de acciones judiciales por apreciación de indicios de delito contra la Hacienda Pública, concurriendo la excepción que para la práctica de liquidaciones prevé el artículo 249.1.a) de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria.



2. Ikuskapen prozedura batean atzematen bada zergapekoak instrukzio honen bigarren apartatuan jasotako kasuetako batean daudela, zergapeko horien zerrenda bidali beharko da berehala.

Ikuskaritzako Zuzendariorde Nagusiak akten, akta proposamenen eta txostenen edukia eskuratzea erraztu behar dio Zerga-billetako Zuzendariorde Nagusiari, eta sumatzen bada Instrukzio honen bigarren apartatuko V. zenbakian jasotako kasuak gertatzen ari direla, zerrendari prozedura tramitatzen ari den aktuarioaren txostena erantsiko zaio.

Bi. Kudeaketako Zuzendariorde Nagusiak informazio hau bidaliko dio Zerga-billetako Zuzendariorde Nagusiari:

1. Hilero, egiaztapen prozedura bat irekita duten zergapekoen zerrenda, baldin eta prozedura hori dagoen fasean aurreikusi baldin badaiteke likidazioaren zenbateko osoa 200.000 € baino handiagoa izango dela. Ondorio horietarako, kontuan izango dira zergapeko bati edo, erlazionatutako espedienteengatik harekin lotutako zergapekoen talde bati likidatu dakizkiokeen zergak eta gainontzeko kontzeptuak.

2. Kudeaketa prozedura batean atzematen bada zergapekoak instrukzio

2. De forma inmediata, relación de obligados tributarios respecto de los que, en el curso de un procedimiento de inspección, se haya apreciado la concurrencia de alguno de los supuestos previstos en el apartado segundo de la presente Instrucción.

La Subdirección General de Inspección facilitará a la Subdirección General de Recaudación el acceso al contenido de las correspondientes actas, propuestas de actas e informes y, en caso de apreciación de concurrencia de los supuestos previstos en el número V del apartado segundo de la presente Instrucción, acompañará a la relación un informe al respecto del actuario que esté tramitando el procedimiento.

Dos. La Subdirección General de Gestión trasladará a la Subdirección General de Recaudación la siguiente información:

1. Con carácter mensual, relación de los obligados tributarios sobre los que se esté tramitando un procedimiento de comprobación que se encuentre en una fase que posibilite prever un importe total de liquidación superior a 200.000 € teniendo en cuenta, al efecto, todos los impuestos y demás conceptos por los que se prevea practicar liquidación respecto de un obligado tributario o, en su caso, de un grupo de obligados vinculados.

2. De forma inmediata, relación de obligados tributarios respecto de los que, en el curso de



honen bigarren apartatuan jasotako kasuetako batean daudela, zergapeko horien zerrenda bidali beharko da berehala.

Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusiak Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiari erraztu behar dio egindako edo aurreikusitako likidazio proposamenen edo likidazioen edukia eskuratzea, eta sumatzen bada Instrukzio honen bigarren apartatuko V. zenbakian jasotako kasuak gertatzen ari direla, zerrendari prozedura tramitatzen ari den organoaren txostena erantsiko zaio.

Hiru. Jasotako informazioan oinarrituta, Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiak jarduketa hauek egingo ditu:

1. Prozeduraren tramitazioaz arduratzen den Kudeaketako edota Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiko organoarekin batera, egiaztatuko du kasua instrukzio honen bigarren apartatuan aurreikusitako bat den edo ez.
2. Egiaztatuko du ba ote dituen zergapekoak ondasunak edo eskubideak har daitekeen kautelazko neurria haien gainean aplikatzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, laguntza eskatu diezaiotke prozedura tramitatzeko arduratzen den Kudeaketako edota Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiko organoari.

un procedimiento de gestión, se haya apreciado la concurrencia de alguno de los supuestos previstos en el apartado segundo de la presente Instrucción.

La Subdirección General de Gestión facilitará a la Subdirección General de Recaudación el acceso al contenido de las correspondientes propuestas de liquidación o liquidaciones y, en caso de apreciación de concurrencia de los supuestos previstos en el número V del apartado segundo de la presente Instrucción, acompañará a la relación un informe al respecto del órgano que esté tramitando el procedimiento.

Tres. La Subdirección General de Recaudación, en base a la información recibida, realizará las siguientes actuaciones:

1. Comprobará, en colaboración con el órgano de la Subdirección General de Inspección o de Gestión al que corresponda la tramitación del procedimiento, si concurren los supuestos previstos en el apartado segundo de la presente instrucción.
2. Comprobará la existencia de bienes o derechos del obligado tributario sobre los que podría adoptarse, en su caso, la medida cautelar, pudiendo solicitar con esta finalidad, si fuera necesario, la colaboración del órgano de la Subdirección General de Inspección o de Gestión al que corresponda la tramitación del procedimiento.



3. Egoki iritziz gero, eta prozeduraren faseak ahalbidetzen duenean, bidezkoak diren kautelazko neurriak hartzea erabakiko du, eta bere erabakiaren berri emango dio Ikuskaritzako edo Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusiari eta Zerga-billetako Zuzendariordetza Nagusiak bere baitan dituen gainontzeko zerbitzuei.

4. Era berean, Instrukzio horren lehen apartatuaren 2. atala eta bigarren apartatuaren 2. atala Zenbakian jasotako kasuak gertatzen ez badira eta kautelazko neurriak ez hartzea erabakitzen denean, horiek egokiak ez izateagatik, Ikuskaritzako edo Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusiari emango dio erabaki horren berri.

Lau. Kautelazko neurriak hartzen badira Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak egoteagatik, jarduketa hauek egingo dira:

1. Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudenean eta ogasuneko zuzendari nagusiak akzio judizialak jartzearen aldeko ebazpena hartu duenean, Zerga-billetako Zuzendariordetzari jakinaraziko zaio.

2. Delituari lotutako likidazioa egin denean edo egin behar denean, kautelazko

3. Dictará, si así lo considera procedente, el correspondiente acto administrativo de adopción de medidas cautelares, cuando el procedimiento se encuentre en una fase que así lo posibilite, comunicando el mismo a la Subdirección General de Inspección o de Gestión, así como a los distintos Servicios en que se estructura la Subdirección General de Recaudación.

4. En los casos previstos en el número 2 del apartado Uno y en el número 2 del apartado Dos, anteriores, dará cuenta, asimismo, a la Subdirección General de Inspección o de Gestión de la correspondiente decisión de no adopción de medidas cautelares cuando las mismas no se consideren procedentes.

Cuatro. En caso de adopción de medidas cautelares en supuestos de apreciación de existencia de indicios de delito contra la Hacienda Pública, se realizarán las siguientes actuaciones:

1. La Resolución dictada por el Director General de Hacienda relativa a la interposición de las correspondientes acciones judiciales por apreciación de indicios de delito contra la Hacienda Pública será objeto de notificación a la Subdirección General de Recaudación.

2. Cuando se haya dictado o se vaya a dictar una liquidación vinculada a delito, la



neurriaren erabakia jakinaraziko dio Zerga-bilketako Zuzendariordetzak Araubide Juridikoko eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari, zigor kodeak bere 305.5 artikuluan aurreikusten duen etetea eskatzen bada ere, eskumena duen organo judizialari jakinarazteko, horrek dagokion erabakia hartu dezan kautelazko neurriari buruz; hau da, neurri judiziala bihurtzea edo altxatzea.

3. Delituari lotutako likidaziorik ez dagoenean, 2/2005 Foru Arau Orokorrak, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa, bere 249.1a) artikulua aurreikusten dituen suposizioak betetzen direnean, hartutako kautelazko neurria Zerga-bilketako Zuzendariordetzak Araubide Juridikoko eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari ezagutaraziko dio, eskumena duen organo judizialari jakinarazteko, horrek dagokion erabakia hartu dezan kautelazko neurriari buruz; hau da, neurri judiziala bihurtzea edo altxatzea.

LAUGARRENA. JAKINARAZPENA

Barne instrukzio hau jakinaraziko zaie Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako, Kudeaketako eta Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiei eta Departamentuko Idazkaritza Teknikoari, haren edukia interesdun guztien artean zabaldu dezaten.

Subdirección General de Recaudación comunicará la medida cautelar adoptada a la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública, a efectos de que, si con posterioridad se solicitara la suspensión contemplada en el artículo 305.5 del Código Penal, se notifique al órgano judicial competente para que adopte la decisión procedente sobre su conversión en medida jurisdiccional o su levantamiento.

3. Cuando no se vaya a dictar una liquidación vinculada a delito, por concurrir los supuestos previstos en el artículo 249.1.a) de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Subdirección General de Recaudación comunicará la medida cautelar adoptada a la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública, a efectos de su notificación al órgano judicial competente para que adopte la decisión procedente sobre su conversión en medida jurisdiccional o su levantamiento.

CUARTO. NOTIFICACIÓN

El contenido de la presente Instrucción interna se notificara a los Subdirecciones Generales de Inspección, de Gestión y de Recaudación de la Dirección General de Hacienda y a la Secretaria Técnica del Departamento de Hacienda y Finanzas, para que sea transmitido su contenido a todos los interesados.



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **FAEBe4beb4bc-c9bc-4444-b30a-d880ca2cbfc1**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoa:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv>